

rak begiak ikusi nahiago. «Horrela hilko zarete zuek ere».

«Apenas zegoen han gaizkilerik. Garbi ikusten ari naiz fusilatu gehienak munta gutxikoak direla gehienbat, eta, asko, errugabeak. Benetako gaizkileek herrietatik alde egiten zuten Francorenak sartu ahala, eta hortik etortzen ziren gero mendekuak, askotan errugabeen aurka». Kaputxinoa ez da beldur bere kaiera txikian sentimendu eta gogo guztiak errenditze-ko. «Epaiketa sumarismoen garaiotan, ez dago denborarik, ez jenderik benetako defentsa egin ahal izateko».

1938ko martxoaren

8a. Anton, donostiar eza-guna. «Joan eta galdetu han. Denek ezagutzen naute ni». Hainbat lokale-tan, jostatzeko, soinu tresnak jotzen zituen horietakoa zen Anton. Eta horrekin bizitza atera. «Duro askoko iruzurra» egiteagatik atxilotua, dena ukatu zuen presondegian. «Joan eta galdetu Donostian. Denek ezagutzen naute». Hormaren aurrean: «Jaungoikoan sinisten dut, eta nik ez dut kulparik».

Komentua presondegitik kilometro eta erdira zegoen. Gumersindok hartu zuen ardura familiarrei idazteko, hala eskatzen baitzioten presoek. Idatzi zien ia denei, eta jaso zituen trukean erantzunak. Ia bakar bat ere ez zuela gorde dio bere idazkietan. Eta pena duela horregatik.

1938ko urriaren 27a. «Etorri lehenbailehen, jauna. Zauritu bat badugu». Presondegitiko pasabidean, gizon bat luze zabal etzanda, kopetan kolpe eta zauri handia duela. Odola irratitzen zaio begitartean eta paparra gorritzen. «Esan du: 'Ni hauek ez naute hilko!' eta hartu du eta burukada eman dio paretari». Kaputxinoak hartu dio pulstua. Badu. «Medikuarengana eraman beharko dugu». «Hemendik medikura ez doa inor», nagusiak. «Edo medikuarengana edo, hila baldin badago, lurperatzera, baina hemen ezin dugu utzi». Ez diote jaramonik egin. Hor utzi dute. Ohiko meza bukatuta, sartu dituzte kondenatuak kamioian, eta zauritua haien hanken artean, lurtean etzanda. Iritsi direnean, lurtean jarri eta azken tiroa eman diote. Gainontzekoei bezala.

163 preso konfesatu zituen Gumersindok 1938an. Francoren agintariek askoz gehiago fusilatu zituzten ordea. Ia denei buruz oharrak hartu zituen kaputxinoak. Batzuetan, hala ere, ezin zuen. «Ez nuen adorerik».



EGUNKARIA

ANAIK. Nestor eta Martin—Gumersindo Lizarrakoa— anaiak. Nestor katedraleko kalonjea izan zen, eta arazoak izan zituen, familia osoak bezala, gerra eta gero.

Igandeetan meza ematen zuen, haien artean Torreroko auzoko presondegian zeuden gudariei.

1939ko martxoaren 23a. Hamazazpi urteko haurra. «Francoren armadako kapitain bat atxilotu nuen. Berak, preso zegoela ikusirik, bere buruaz beste egin zuen. Bere arma guztiak ere hartu nituen, eta teniente egin ninduten». Harrigarria mutikoaren harrotasuna, heldutasuna, lasaitasuna. «Teniente, e?», kaputxinoak. «Eta zergatik ez kapitain?». «Badakizu, mailak errespetatu behar». Aitortza nahi ez ordea. «Ez dut behar, aita. Prest nago hiltzeko». Katalana zen.

Atxilotutako gehienak Zaragoza ingurukoak ziren, asko Teruel inguruko borroketan harapatutakoak. Teruelgoa izan zen 36ko gerrako borrokarik gogorrenetakoa. Han erabaki zen gerra.

1939ko maiatzaren 20a. Ricardo, 28 urte. «Hiltzen naute-nean, esaiozu, mesedez, andreari, bere eskutitza irakurrita hil naizela, pozez». Buruan hiru tiro eman behar izan zioten. Kaputxinoak agindutakoa bete, eta handik gutxira iritsi zen andrearen galdera. Esateko mesedez egia. Eta esan

zion. Toledotik etorri zen alarguna. Literalki, erauzi egin behar izan zuten gizona lurperatuta zegoen hilobitik. Ordaindu zioten bueltako bidaia, hori bai.

Gumersindo gaizki zegoen osasunez. Pirinioetara bidali zuten orduan denbora batez, giro epelagora. Han, Sallenten, preso zeuden bi mila gudari, eta meza ematen zien, igandero. Bermeoko preso batek egin zion aldarea. «Niretzat ez zarete preso garaituak. Zuek, niretzat, ni bezalakoak zarete, ni egin ninduen esku berek egin baitzintuzten». Herriko tabernan bere kontura nahi zutena hartzeko esaten zien. Gero eskupekoekin ordaintzen zuen kontua.

1939ko azaroaren 6a. Hamasei preso fusilatzeke. Laguntzaile bat egun hartan. Jesuita. Kondenatuak kamioira igotzen ari zaretela, «animo mutilak, zeruaren atarian zaudete eta». «Ez zara haien tokian jarriko...», kaputxinoak, bere kolkorako. Azken hitzak jasotzen ari zela, baztertu behar. Tiroak berehala.

Egunero bere egutegian apuntatzen zituen orri haiek oihartzuna izan zuten kaputxino hainbaten artean. Gerra bu-

katuta, bera bezalako asko legez, Gumersindo Argentinan zen. Oharrak txukuntzeko eskatu zioten lagunek, eta hala egin zuen. Dokumentua —gerriari buruz idatzi den gogorrenetakoa— eskuz esku ibili zen, harik eta, hil hurren, originala Markos Leitzakoa bere lagunaren esku utzi zuen arte. Bi baldintzarekin utzi ere: argitaratzeko, eta kaputxinoen nagusien eskuetan sekula ez uzteko.

1973a zen. Leitzako gizonak Iruñeko familia bati igorri, eta astebetera hil zen. Originalaren pista galduta kaputxinoek. Bitartean, gazte taldea antolatu zen ordenaren barruan, Gumersindoren lekukotzak argira emateko antolatu ere. Haietako batek gogoratu duenez, Victor Manuel Arbeloari eman zioten aitzinsolasa egiteko enkargua, baina politikaria, artzapezpi-kuarekin hitz egin eta gero nonbait, hoztu zen, eta berarekin proiektua. Ahanztura.

Orain hartu dute berriro asmoa. Badirudi laster argitaratuko direla pape-rak.

«Orri hauek, noizbait, jendearengana iritsiko balira» idatzi zuen Gumersindok, «ez lirateke alferrikako; alderantziz, pizgarri, nire ustez».

1939ko azaroaren 7a.

Hamalau lagun hormaren aurrean. Ideiengatik atxilotuak denak. «Ondo destatu, mesedez». Kaputxinoa erreguka ari zaie soldaduei. «Ez luzatu sufrikarioa. Badakizue bihotza non den?».

Deskarga entzun da. Bakar bat ere ez da lehen tiroarekin hil. «Nik uste dut nahita egiten zutela. Gora egiten zuten tiro, edo lurrera, edo hormara».

Beste deskarga bat, eta beste bat. Baina bat ere ez ondo jo. Hamalauak hantxe zutik, oinazez atzeraka balantzaka, hormaren kontra, poliki-poliki lurrrerantz etortzen, minez barruak lehertzen, ziztadak hanketan, besoetan, tripetan.

Beste deskarga bat eta oihauek oraindik, eta beste deskarga bat, eta bati fusila trabatu zaio, eta tiro solteak. Sarraskia. Haietarik bat gelditu da, bost aldiz buruan tirokatu eta gero, arnasestuka. Kaskoa leherrarazita, ez da odola eta haragi pus-kak baino. Kaputxinoak, arren, behingoz hiltzeko koitadua. Baina medikuak erabaki du ez dagoela tiro gehiagoren beharrik. Eta hor utzi dute. Arnasestuka.

Gero kamioira igo, eta hilobi komunera eraman dute.

euskararen
donostia

patronatu



Donostia Udal
Ayuntamiento de San Sebastián

antzerkia

•• **1937, gogoaren bidezidorretatik**
Kukai, Tanttaka
1937ko maiatzaren 7an
erbestera ihes egin zuten
haurren historia
Otsailaren 14 eta 15ean,
21.00etan eta 16an,
20.00etan
Antzoki Zaharrean

•• **Metxa**
AEK, Tentazioa
Koldo Izagirrek idatzitako
Metxa liburuan oinarritua
Otsailaren 21 eta 22an,
20.00etan
Antzoki Zaharrean

haur antzerkia

•• **Ekidazu**
Kukubiltxo
Otsailaren 22an, 18.00etan
Egia Kultur Etxean

•• **Kokoroko**
Ados
Otsailaren 22an, 17.00etan
Ernest Lluch Amarako Kultur
Etxean

ikuskizuna

•• **Hamalau baietz 1965-1975**
Korrika 13ren omenaldi
ekitaldi nagusia
Otsailaren 16an, 19.30etan
Kursaaleko Ganbara aretoan

musika

•• **Imanol**
Otsailaren 21ean, 20.00etan
Kursaal Auditorioan

ipuinaren ordua

•• **Neguko ipuin beroak**
Otsailaren 19an, 18.00etan
Casares Kultur Etxean
Otsailaren 21ean, 18.00etan
Lugaritz Kultur Etxean

•• **Hodei tripaundia**
Otsailaren 20an, 18.00etan
Egia Kultur Etxean